

# Ainhoa Nadia Douhaibi

IDEIAK ZORROTZ ETA HITZAK SAMUR (OÑATIKO ZENTZUAN)



## EZ GARA ARRAZISMOARI BURUZ HITZ EGITEN ARI



Liburu aurkezpenaren aitzakian, gustura jardun dugu hizketan Gasteizko alde zaharreko freskuran. Bera behar adina esan ez izanaren sentsazioarekin geratu omen da. Gu esandako guztitik zer liseritu ote dezakegun zalantzan gaude oraindik.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

**Hamahiru urte dira Bartzelonara joan zinela bizitzera. Zenbat aldiz aditu duzu noiz itzuli behar ote duzun?**

Hori Oñatin bakarrik galdetzen didate. Han, Bartzelonan, inork ez du galdetzen noiz itzuli behar duzun. Inork ez daki nongoa zaren ere. Baina, orain, hemen ere gero eta gutxiago galdetzen didate.

**Atzerriko hizkuntzako irakasle zinen Oñatin, eta master bat egitera joan zinen hara.**

Interesa neukan migrazio kontuetan eta entzuna nuen Katalunia nahiko aitzindaria zela gaiotan. Egia esan, ez neukan halako espektatibarik ere. Ez nekien zer egitera nindoan zehatz-mehatz, baina, irteteko gogoia neukan eta halaxe joan nintzen.

**Eta hortik gazte migratzaileekin lan egitera igaro zinen. “Harrera zentro” deiturikoetan ematen die babes –obligazioz– Espainiako Estatuak adin txikiko migranteei, enpresa pribatuek kudeatutako aterpetxeetan. Eta han sartu zinen zu.**

Ez zen aurreikusitako zerbait izan. Hasi-eran euskal tabernatan egin nuen lan, lana topatzeko aukerarik samurrena zelako. Baina, masterra bukatzen nebilela gogoia nuen aldaketarako. Ostalaritzan urte pila bat neramatzen, eta iragarki bat ikusi nuen zentro batean lan egiteko. Ez nekien zer zen ere, egia aitortuta. Iragar-ki horretan jartzen zuen gazte etorkinekin gauzez aterpetxe batean lana egiteko aukera zegoela eta deitu egin nuen. Eta zuzenean esan zidaten biharamunean elkarrizketa batera azaltzeko. Dena oso

agudo. Elkarrizketara joan nintzen nora nindoan jakin gabe eta galdetu zidaten ea gazteekin-eta ondo moldatzen nintzen, eta nik baietz, eta esan zidaten “baina marokoarrak dira”, eta nik, berriz, “ni erdi marokoarra naiz”, eta handik egun gutxira lanean nintzen.

**Eta zerekin egin zenuen topo han?**

Nahiko ondo akordetzen naiz lehen egun hartaz. Ramadaneko lehen eguna zen eta ni nahiko urduri nengoen. Zentro hau Bartzelonako periferian zegoen, eta egituraz oihal fabrika zahar bat zen. Sarrera zen horrelako kartzela-ate baten modukoa, eta sartu nintzen eta hasieran ez zegoen inor. Baina, gero mutikoak ailegatzen hasi ziren. Eta han nengoen ni, enpresa subkontratatu haren izena zerman kirol-jertse moduko batekin.



# Ainhoa Nadia Douhaibi Arrazola

OÑATI, 1983



Arrazismo instituzionalari buruzko liburua argitaratu berri du Salma Amazianekin batera: *La radicalización del racismo. Islamofobia de Estado y prevención antiterrorista* (Arrazakeriaren erradikalizazioa. Estatuaren islamofobia eta prebentzio antiterrorista); Cambalache, 2019. Aurretik parte hartu zuen deportazioen inguruko *Paremos los vuelos* (Geldi ditzagun hegaldiak) liburuan ere (Cambalache, 2014). Gizarte hezitzaile gisa lan egin du hainbat urtez, baita interkulturalitate teknikari gisa ere, Bartzelonako udalean. Islamofobiaren aurkako militantea eta militante antiarrazista gisa ere jarduten du hainbat espazio eta kolektibotan (Tanquem els CIE, Assemblea Antiracista de Barcelona, Stop Deportación), eta gaur egun Universitat Oberta de Catalunya irakaslea da.



Mutiko gazte pila bat ziren, laurogei, oker ez banago, eta lau hezitzaile eta bi zaindari ginen. Imaginatu soinua fabrika zahar hartan. Ez zegoen leihorik, uda hasera zen, eta sekulako gosearekin zetozen. Eta lehen gauza, dutxak. “Orain eskuoihalak banatu behar dituzu”. “Orain janaria eman” –janaria burdinazko erretiluetan ematen zen, ezin zen errepikatu...-. Eta afaltzen geundela, ez dakit zeren harira mutiko handikote batek beste bati goitik behera, danba! Sekulako kolpea eman zion. Mutikoa-ren buruak mahaia jo zuen eta danbatekoak zortzi edo hamaseirentzako zen mahai hura hankaz gora jarri zuen. Eta nik nola hala esan nion “hau ez dago ondo eta ezin duzu egin”, eta tipoak begiratu zidan eta bere begietan irakurri nuen “ze ostia azaldu behar didazu zuk nire bizitzari buruz?”. Egun horretatik aurrera apur bat konturatzen joan nintzen non sartu nintzen.

## Nola kokatu egoera horretan? Nola irakurri errealitate hori?

Begi-bistako biolentzia asko dago –eta gero gauza asko eta oso politak ere bai!-. Baina, ingurua bera da biolentzia. Ez zeukaten intimitaterik, burdinazko ohez betetako logelak ziren, ez zieten aski arropa bero ematen neguan, eta hala eta guztiz ere, mutikoen problema nagusia ez zen hori. Haien egunerokotasunean larritasunak ziren “non daude nire paperak?”, “zergatik ezin dut lan egin?”, “zergatik ezin dut zentrotik nahi dudanean irten?”. Eta mutilek hemezortzi urte betetakoan, paperik gabe kalera botatzen zituzten nora joanik gabe. Pixkanaka hasi nintzen begirada beste alderantz zuzentzen, ez hainbeste mutikoek zer egingen zuten, baizik eta administrazioak, instituzioak, hezitzaileek zer egingen zuten, edo zer ez zuten egingen. Denbora bat eman nuen lanean hastetik ana-

lisia egitera. Politizatu egin nuen egiten nuen lanarekiko nire begirada.

**Hizki larrizko politikak ere hizpide izan ditu gazteok duela ez hainbeste. Iazko azaroaren 5eko hauteskunde debatean Santiago Abascalék MENAK –gurasoengandik banatuta diren 18 urtetik beherako atzeritarrak– izan zituen hizpide: *manada* hitza erabili zuen haiek aipatzeko, eta talde bortxaketekin lotu zituen zuzenean. Deigarria da noiz eta nola hitz egiten den gazteon inguruan; nork hitz egiten duen eta nork ez duen hitz egiten...**

Esanguratsua da ikustea zein den gazteon ikusgarritasuna. Eskuin muturrak aipatzen dituenen dira ikusgai, baina, aipatzen ez dituenen desagertu egiten dira. Eta besteek gazteoi buruz hitz egiten dutenean eskuin muturraren arrazismoa azpimarratzeko egiten dute, arrazismoa eskuin muturrarena soilik balitz bezala, ezkerre bekaturtik libre utziz. Baina ezkerrena ere bada ardura gazteok mediatizazio maila honetara orain eta horrela iritsi izanarena, ez? Ez dugulako haietaz hitz egiten ez bada VOXi buruz hitz egiteko, eta ez dugulako arrazismo instituzionalaz edo egiturazko biolentziak hitz egiten. Eta VOXek gazteon gaia instrumentalizatu dezake soilik gaiak tresna gisa funtzionatzen baldin badu. MENAK ez ditu VOXek asmatu, kategoria hori eta kategoria horrekin lotzen den ideia sarea VOX sortu aurretik ere hor zegoen. Eta horretan erantzukizuna fakzio politiko guztiek, komunikabideek eta gizarte

osoak dauka. VOX arazo bat da, baina, ez da arazoaren muina.

**Zuk eta Salma Amazianek argitaratu berri duzuen liburuan aipatzen duzue, arrazismoaren erradikalizazioa eta estatu islamofobia. Izenburuak dagoeneko badu bere ironia, erradikalizazioa hain justu ere gehiago lotarazi digutelako islam, musulman edo jihad bezalako kontzeptuekin.**

Dena esan behar bada, izenburua nahiko poperoa da. Funtzionatzen duelako nahi genuenerako. Guk nahi genuena zen eztabaida piztea eta elkarrizketak sortzea. Ez gara arrazismoari buruz hitz egiten ari, ez gara estatu islamofobiari buruz hitz egiten ari, eta ez gara politika antiterroristak aurrekoekin duen loturaz hitz egiten ari. Egiten dugu berba seguritateaz, interkulturalitateaz, bizikidetzaz, inklusioaz... Besteak beste, arrazismoa tabu bat delako.

“

**Mossoak eskoletara sartzen dira irakasleei formakuntza ematera eta gero irakasleak beraiek dira polizia lana egiten dutenak”**

Beste guztiaz hitz egiten da, eta arrazismoaz hitz egitekotan, besterenaz.

Baina, arrazismoa hor dago, bizikidetzari buruzko diskurtsoetan, demokraziari buruzkoetan, legaltasunari buruzkoetan, are feminismoari buruzko diskurtsoetan ere.

Arrazismoaz hitz egiten dugu esateko arrazista dela magrebierrei *moro* esatea edo immigrazioaren erabat aurka agertzea, baina, ez gara iristen arrazismoa ikustera gure gizartea, bizi garen espazioa, eta gure bizitzak eta heriotzak arautzen dituen ardatz baten gisan, eta are gutxiago horretaz hitz egitera. Gehienez ere ariko gara estereotipoez, aurreiritziez, desberdinkeriaz

edo xenofobiaz. Baina, ez dugu xehetzen nola determinatzen duen arrazaren erai-kuntza sozialak –alderantziz bezalaxe– gure generoa bizitzeko modua, gure klasea gorpuzteko modua, eta gure bizitzan posible dena eta ez dena, azken batean.

**Liburuan diozu, hain zuzen, Mohammed, Bula edo Sraf izenek arrisku adierazle gisa funtzionatzen dutela gure artean. Eta generoaz ari zarela, zer gertatzen da, Nadiya, Fatima edo Aziza bezalako izenekin?** Jarriko dut eskolako adibide bat. Aurreko astean, Bartzelonan proiektu batean lanean ari ginela 25 bat urteko neska batek kontatu zigun –marokoarra da eta hijab-a darabil– txikitan sekulako barrabasa zela. Eta kontatzen zuen nola eskolan berari dena barkatzen zioten eta nola sekulako ahalegina egiten zuten ikasten jarrai zezan. Berak ikasi egin behar zuen, nonbait, ulertzen zelako bera etxean azpiratua zela, bere familiaren kulturak emakumea zapaltzen zuelako. Eta, orduan, mesede bat egiten ari zitzaizkion. Salbatzen, nonbait. Bere anaia, aldiz, adin bertukoa izanik, izorratu besterik ez zuten egin. Bihurria izanik hura ere, arriskutsua zelako, nonbait. Genero erai-kuntzak arrazaren erai-kuntza sozialak zeharkatzen ditu eta arrazismo kulturala dago horren muinean.

**Hain zuzen, Kataluniako eskola eremuko prebentzio politikak aztertu dituzu zuk. Zer gertatzen da estatu islamofobia eta estatu arrazismo horrek neurri konkretuak hartzen dituenen?** *Charlie Hebdo*-ren ondorengo 2015 hartan, Kataluniako Barne kontseilariak halako adierazpen batzuk egin zituen, esanez mendebaldeko bizimoduaren eta baloreen aurkako terrorismo global bat

**JARDUNALDIAK**  
**Hezikidetzatik Pedagogia Feministaruntz!**

**NOIZ: 2020ko Martxoaren 12an**  
**NON: Montehermoso Kulturunea VITORIA-GASTEIZ**

**steilas**  
www.steilas.eus

**idazkaritza feminista**

azaleratzen ari zela. Ordura arte koor-  
denada politikoetan irakurtzen zena  
koordinada kulturaletara pasa zen, ter-  
rorismoa helburu politikoak lortzeko  
baino, bizitzeko modu batzuk suntsi-  
tzeko tresna bihurtuz. Eta gehitu zuen  
“gure bizilagun musulmanak kontrol be-  
rezia eskatzen duten gizataldeak” direla.  
Eta horixe izan zen *erradikalizazioaren  
prebentziorako protokolo* deitzen dituz-  
ten horien irteerako pistola-tiroa. Eta  
prebentzio hitzak halako konnotazio po-  
sitiboa duenez –nola egongo da gaizki  
okerrekorik gerta ez dadin aurreikuspe-  
nez jokatzeko?–, denok isilik. Baina, pre-  
bentzio hori soilik populazio jakin bati  
dagokio, eta halako fase aurre-kriminal  
bat eraikitzen du, printzipioa argia bai-  
ta: populazio musulmana bere osotasu-  
nean zelatatu, eta gero galbahea pasa,  
ikusteko nork merezi duen zaintza zo-  
rrotzagoa eta nork ez.

Esku-eskura dituzte horretarako  
*think tank* eta gobernu-lobby mordo ba-  
tek erradikalizazioaren prebentziorako  
sorturiko teoriari. Zergatik hitz egin geo-  
politikaz eta geoekonomiaz, eta zerga-  
tik eztabaidatu Espainiako Estatuaren,  
AEBen zein Iparralde Globalaren kanpo-  
politikez, terrorismoaren arazoaz hitz  
egin daitekeenean, ezta? Are gehiago  
atentatuak Europako lurretan gertatzen  
ari direnean.

### Eta zein da potentzialki arriskutsu?

Teoria hauen arabera, islamaren zen-  
bait adarretako pertsonak halako au-  
rretiko joera psiko-kultural batzuk li-  
tuzkete, ekintza bortitzak burutzeraz  
eramango lituzketenak. Pentsamendu-  
aren eta ekintzen arteko marra zuzen bat  
marratzen dute, bi elementu gurutzatuz:  
alde batetik, arrisku faktoreak eta  
bestetik erradikalizazio adierazleak.  
Arrisku faktoreak lirateke prekarjeta-

tea edo marginaltasuna, esaterako. Eta  
erradikalizazio adierazleak, aldiz, prak-  
tika soilak, maiz erlijioari loturikoak,  
alegia, izan liteke hijaba janztea, norbe-  
re herrira bisita egitetik itzultzean es-  
kuetan henna edukitzea, janzkera jakin  
bat, bizarra uztea, otoitz egitearen on-  
doriozko seinalea edukitzea kopetan, Al  
Andalus-en historiaz egiten den irakur-  
ketarekiko kritiko azaltzea, gaur egun-  
go sistema politikoarekiko desadosta-  
sunak edukitzea, Israel eta Palestinaren  
arteko gatazkarekiko interesa... Edozer  
izan liteke erradikalizazio adierazle.

### Prebentzio hau, edo kontrol mekanismo hauek, praktikan ze neurri dira?

Ba, Mossoak eskoletara sartzten dira ira-  
kasleei formakuntza bat ematera eta  
gero irakasleak beraiek dira polizia lana  
egiten dutenak. Erradikalizazio adie-  
razle izan daitekeen zerbait ikusten  
dutenean, informazioa pasatzen diote  
poliziarri. Hirurehun aktibazio egon dira  
bi urtetan. “Ez dakit zer gertatzen zaion  
Mohammedi, baliteke beharbada zer-  
bait egotea aldaketa honen atzean...”  
eta Mossoei deitzeak dakar eskola zu-  
zendaritzak, tokiko polizia indarrek eta  
eskola-psikologoak esku hartzea. Eta  
erradikalizazio teoria nagusien arabera,  
erradikalizazio prozesuak gertatu ohi  
dira idekidura kognitibo bat gertatzen  
delako, alegia, etxeokok zein lagunak  
eragindako ideia aldaketengatik, funtsean.  
Eta beraz, lagunak eta etxeokok  
ere zelatatzea komeni da, noski. Zer  
egiten du lagunekin dagoenean? Non  
dago bere aita? Ze meskitatara joaten  
da? Zer esaten dute meskitako imamek?  
Protokoloaren aktibazio bakoitza he-  
rritarrak zelatatzeke dispositibo basati  
bat da. Zeren, terrorismo arriskua ez da  
inoiz bukatzen. Inoiz ez. Eta mehatxua

hain da handia... Ez da “beharbada diru-  
zorro bat lapurtuko du”, ez, kontua da  
beharbada jende asko hilko duela.

Eta iristen da Kataluniako *proces*-a,  
eta CDRei terrorismoa leporatzen diete,  
terrorismo “jihadista”ren harira treba-  
tutako diskurtsoak aplikatzen zaizkie,  
eta jende guztiak erreakzionatzen du:  
“Estatua zoratu egin da!”. Eta aldiz, mu-  
sulmanen mehatxua erabat barneratua  
dugu, eta sentsibilizatuta egon arren,  
metroan baldin bazoaz eta mutil ma-  
rokoar batek motxila ahazten baldin  
badu zure aldamenean, hanka egingo  
duzu. Guk geuk identitate jakin batzuk  
arriskuarekin oso tripetatik lotzea lor-  
tu dute.

### Honen aurrean nondik hasi behar dugu lanean?

Ba beste ordena sozial bat nahi badu-  
gu, oraingoak nola funtzionatzen duen  
ulertzen ez badugu alferrik da. Eta nik  
arrazismo instituzionalen jartzen dut  
fokua ze behin Ambalavaner Sivanan-  
dan-i entzundakoak nire eginez, begira,  
“niri berdin zait zu arrazista zaren edo  
ez zaren, egin nahi duzuna, arrazista  
baldin bazara arazoa zurea da, zeu zara  
babo”. Niri interesatzen zaidana da  
nire ahizpak eta nebak ez deportatzea  
eta poliziak ez tratatu txarrik ematea, adi-  
bidez. Ez zait ardura zu moralki nola-  
koa zaren. Niri jende honen egiturazko  
biolentziak bizitza ez baldintzatzea in-  
teresatzen zait. Nik hortik ikusten dut  
bidea, zeren aldaketa subjektiboak, ba  
ondo daude, noski, baina, gure subjek-  
tibilitateak bostehun urteko proiektu  
zibilizatzaile batek eraiki dituzenez, ho-  
rien deseraikuntzatik abiatzeko den-  
bora asko behar dugu, eta estatu arra-  
zismoak eta arrazismo instituzionalak  
sortutako bortxekin amaitzea erabat  
premiatzkoa da. ●

